

BAZTANGO GURASO ELKARTEEN 2024KO DITUZTEN KULTUR JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

Atarikoa

Baztango Udalak, bere Kultura Zinegotzigoaren bidez, Baztango haurren kultura prestakuntzan lagunduko duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea du helburuetako bat. Horretarako Baztango Guraso Elkarteei baliabide ekonomikoak bideratuko zaizkie.

Beraz, indarrean dauden udal-aurrekontuen mugen barruan, eta kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak finkatzen dituen printzipioak (publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza), 2024an Baztango guraso elkarteek jarduerak egin ditzaten dirulaguntza deialdia proposatzen da.

1.–Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, 6.000 eurokoa da, 2024. urteko aurrekontuan dagoen 1-3340-4890001 “Guraso elkarteak kultur jarduer. dirul.” kontu-sailean jasoa. Aurrekontu-zuzkidura osoa agortzen ez bada, Baztango Udalak 1-3340 4890000 kontu-sailera zuzenduko du.

1.2. Deialdi honen xedea Baztanen egoitza soziala duten guraso elkarteei dirulaguntza ematea da, guraso-elkarteen bidez hezkuntza- eta kultura-jarduerak programatzen eta antolatzen laguntzeko.

1.3. Ondoko ezaugarriak dituzten jarduera soziokulturalak egiteko laguntza ekonomikoa ematea:

a) Euskararen erabilera bultzatzea.

b) Formakuntzakoak izatea (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...).

c) Sormenekoak (erakusketak...) izatea.

d) Artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...) edo antzeko izaera duten jarduerak izatea.

e) Herritar guziendako irekiak izatea.

f) Ikuspegi inklusiboa eta hezkidetzakoa duten kultura-jarduerak; horrela, proposatutako ekintza guztiek ikasleen eta familien aniztasuna kontuan hartuko dutela (generoa kultura, behar ekonomikoak, hezkuntzakoak eta bereziak) ulertzen da, eta ikasle guztiek parte har dezaten neurri egokiak ezarriko dituztela.

1.4. Jardueren edukiak ondorengo helburuak betetzera bideratu beharko dira:

–Baztango haurren kultura prestakuntzan laguntzen duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea, eta hori lortzeko guraso elkarteei laguntza ekonomikoa ematea.

–Laguntza ekonomikoa ematea Baztanen legezko egoitza duten guraso elkarteei, pertsonen kultura garapena bultzatzen duten jarduerak edo programak garatzeko, balio hauek bereziki

aintzat harturik, bertzeak bertze: genero indarkeriaren zein indarkeria fisikoaren aurkako baloreak, belaunaldien arteko harremanak, gure herriko ingurunearen, kulturaren edo historiaren ezagutza.

–Eskolako ordutegitik kanpo jarduerak egiteko erraztasunak ematea, betiere haurren arteko harremanetarako elkarguneak ahalbidetzen dituztenak, laguntasuna eta elkarbizitza sustatuz.

–Haurren kultura formakuntzan laguntzen duten jarduera oro, orokorki ‘eskolaz kanpokoak’ edo ‘osagarriak’ izenez ezagutzen direnak sustatzea.

-Hezkidetzak sustatzen duten eta genero-rol eta -estereotipoei dagokienez hezkuntza ekitatiboa sustatzen duten sentsibilizazio-jarduera kulturalak sustatzea, hala, familia erantzukizun eta generoarekin lotutako pertsonen zaintzan eraginez.

- Ikuspegi inklusiboa eta hezkidetzakoa duten kultura-jarduerak bultzatzea. Horrela, proposatutako ekintza guztiek ikasleen eta familien aniztasuna kontuan hartuko dutela (generoa, kultura, behar ekonomikoak, hezkuntzakoak eta bereziak) ulertzen da, eta ikasle guztiek parte har dezaten neurri egokiak ezarriko dituztela.

-Jarduerak Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete behar du.

1.5. 2023ko azaroaren 1etik 2024ko azaroaren 1era bitarte burutzen diren jarduerak dira diruz lagunduko direnak.

–Jarduerak finantza-bideragarritasuna izan behar du. Elkarre onuraduna Baztango Udalaren dirulaguntzaren bidez estali ez den gastua estaltzeaz arduratuko da eta, horretarako, finantziario publiko edota pribatuko berriz iturri batzuek baliatuko da.

Gastu hauek onartuko dira:

-Egoera sozioekonomiko ahulean dauden pertsonen laguntza ematen dietenak, diruz lagundutako proiektua osatzen duten jardueretara joateko zailtasunak badituzte matrikula gastuen ondorioz. Hauen onarpenerako, Baztango Udaleko Oinarrizko Zerbitzuaren txostena behar da.

1.6. Deialditik kanpo geratuko dira:

–Haurrentzat ez diren jarduerak.

–Inola ere ez dira diruz lagunduko mantenu gastuak (bazkariak, afariak, ahamenak...).

–Inola ere ez da diruz lagunduko inbentarioko materiala (ordenagailuak, irriak, altzariak, funts bibliografikoak...). Soilik liburu erosketak lagunduko dira diruz, betiere liburu horiek zerikusituzena dutenean antolatutako jarduerekin (literatura topaketekin, ipuin kontalariekin...).

-Ezaugarri sexistak, arrazistak, indarkeriazkoak, etabarrekoak dituzten jarduerak.

–Diru-sarrera propioak eta nahikoak dituzten eta defizitik ez duten jarduerak.

–Ageriki faltsukeriaz egindako eskaerak, edo osatu gabe daudenak.

- Aurreko urteetan gastuak justifikatu ez zituzten eskaerak edo dirulaguntza bat jasotzeak dakartzan eginbideak bete ez zituztenak.
- Udal eskaintzarekin lehiatuko diren jarduerak.
- Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza- jarduerak.
- Kirol-jarduerak.
- Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruz erabat lagunduak.
- Ikastetxeak ikasleei arratsalde arreta emateko antolatzen dituen jarduerak.
- Egoitza edo lokalak egokitze lanak edo hirigintza arloko bertze edozein lan.
- Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...).

2.–Entitate eskatzaileak.

Dirulaguntza deialdi honetan Baztanen helbidea duten eta udalerrriaren intereseko zerbitzuak ematen edo jarduerak egiten dituzten guraso elkarteek parte har dezakete , betiere, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean honako baldintzak betetzen badituzte (dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomiko osoan iraun behar dutenak):

- Beren estatutuetan ezarritakoari jarraikiz kultura esparruan jarduerak garatzea.
 - Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan. Hori frogatzeko, elkartearen estatutuen kopia aurkeztu behar da. Baztango Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da agiri horiek aldatu ez direla adierazten duen legezko ordezkariaren aitortpena. III eranskina.
 - Zerga betebeharrak eta Gizarte-segurantzakoak eguneratuta edukitzea.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak dagozkien egiaztagiri bidez egiaztatuko dira. Baztango Udalarekiko zerga betebeharrei dagokienez, ofizioz egiaztatuko dira. Era berean, emakidaren proposamena egin aurretik, ofizioz egiaztatuko da ez duela Udalaren Diruzaintzan deus ordaintzeke.
- Aitzineko urteetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoen egiaztatu gabeko deus ez izatea Baztango Udalarekin.
 - Dirulaguntza eskatzen den egitasmorako Baztango Udalarekin lankidetzaz hitzarmenik, zerbitzu kontrataziorik edo bertze era bateko kontratu edo konpromisorik sinaturik ez edukitzea eta jarduera bererako Udalaren beste arlo batzuetako diru-laguntzarik ez izatea.

3.–Eskaeren aurkezpena.

3.1. Guraso elkarteetako lehendakaritza edo ordezkariak egin beharko dituzte eskaerak.

3.2. Eskabideak behar bezala beterik, telematikoki, Baztango Udalaren erregistro elektronikoen bidez [Sede Electrónica - BAZTAN](#) edo edozein erregistro ofizialen bidez, elkartearen legezko ordezkariak duen pertsonak.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 3a (egun hori barne) izanen da.

Deialdian aurkezteak oinarrien onarpena suposatzen du, eta eskaerak emandako ereduaren arabera bete beharko dira.

Dirulaguntzak emateko prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan eman dion organoa izanen da.

Balorazioa. Eskabideen ebatzi-proposamena egiteko balorazio-batzorde eskuduna honako hauek osatuko dute: Kultura zinegotziak, Kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi batek. Halaber, balorazio batzordeak balorazio batzordeko kide ez diren teknikarien aholkularitza eskatzen ahalko du.

3.3. Eskabideak dirulaguntzarako deialdi honetan dagoen I. eranskinaren arabera aurkeztu beharko dira eta eskaerarekin batera honako agiri hauek joanen dira:

–Jardueren zerrenda (II. eranskina eredu hartuta), dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean behar diren datuak dituzten jarduera guztiekin.

–Idatzizko konpromisoa Udalaren dirulaguntza jasotzeko aurkeztu diren jardueren hedapen eta publikitate euskarrietan honako hau paratzeko:

Baztango Udalaren armarria eta “Laguntzailea: Baztango Udala” esaldia.

–Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Baztango Udalarekiko betebeharrak fiskalei dagokienez, ofizioz egiaztatuko dira.

Era berean, emakidaren proposamena egin aurretik, Udaleko Diruzaintzan zenbatekorik ordaintzeke ez duela ofizioz egiaztatuko da.

–Elkarte eskatzailearen legezko ordezkariaren adierazpen arduratsua, elkarte Nafarroako Gobernuaren Elkarrean Erregistroan izena emanda dagoela jasoko duena eta honako hau ere azalduko duena (III. Eranskina eredu harturik): Erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak aldaketarik ez duela izan.

3.4. Diruz lagunduko den zenbatekoa onartzen den aurrekontuaren portzentaje bat izanen da, kontuan izanda —arau orokor gisa— dirulaguntzaren gehieneko kopurua aurrekontu horren % 70ean finkatuko dela. Azkeneko kostu erreala hasieran aurreikusi denarena baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki murriztuko da, azken kopuruetara egokituz.

Dena dela, diru-laguntzen onuradunek ezin izanen dute 2.000 € baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

3.5. Behin eskaera aurkeztuz gero, aurkeztu diren agiriak oinarri hauetan eskatutakoarekin bat datozela begiratu da. Akatsak zuzentze aldera, gehieneko 10 egun naturaleko epea

emanen zaio eskatzaileari zuzenketa eskaria jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hala egiten ez badu, eskaera artxibatuko da eta eskatzaileak bertan behera utzi duela ulertuko da.

Errekerimenduak posta elektronikoz eginen dira, eskaera-inprimakian jasotako helbidera zuzenduta.

4.–Banatzeko irizpideak.

4.1. Aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu Baztango Udalak eta dirulaguntzak emango ditu ondoko irizpideei jarraituz:

1. Aurrekontu-partida osoaren % 20 onartutako eskaeren artean banatuko da, zati berdinetan.
2. Jardueren izaera hezigarria. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
3. Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
4. Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
5. Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatezko lana kontuan hartuko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
6. Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea balioetsiko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 30.
7. Baztanen egoitza soziala duten erakunde desberdinen arteko elkarlana baloratuko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
8. Norberaren herritik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.

5.–Dirulaguntzen ebazpena.

5.1. Dirulaguntzaren ebazpena Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez eginen da. Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da. Guraso Elkarteek 15 egun naturaleko epea izanen dute, hala nahi balute, emandako dirulaguntzari uko egin ahal izateko.

6.–Dirulaguntzaren justifikazioa.

6.1. Ordainketa agindua eman ahal izateko, guraso elkarteak emakidaren erabakian eta deialdi honetan eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea ezinbestekoa da.

Horretarako, 2024ko azaroaren 3a baino lehen telematikoki, Baztango Udalaren erregistro elektronikoen bidez (Sede Electrónica - BAZTAN elkartearen legezko ordezkari duen pertsonak ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

—Gastuen justifikazioa (IV. eranskina eredu hartuta). Gastuak fakturen, nominen eta halakoen —jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak— bidez justifikatu behar dira, indarrean dagoen

legeriaren arabera eginda eta diruz lagundutako jardueraren arabera ordenatuta. Hartu-agiriak soilik bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zurrizko onartuko dira eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan. Hala balitz, faktura egitera eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu beharko ditu: jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-abizenak, IFZa eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; guztizko prezioa, tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Ordainagiriekin eta fakturekin batera, banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Irteera kulturalak. Udalerritik kanpoko joan-etorri gastuak onartuko dira. Era berean, sarrera txartelen (bisita gidatuen, museoetarako sarrereren...) gastuak onartuko dira.

Joan-etorriak norberaren autoan egiten badira, gastuak justifikatzeko agiritan ibilgailua nork eraman duen agertu behar da, joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den eta data. Joan-etorria garraio enpresa baten bidez eginez gero, garraio enpresako faktura aurkeztu beharko da eta, bertan, legeak eskatzen dituen datu guztiak agertuko dira, bai eta jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere (joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den, data). Diruz lagundutako jarduera bakoitzeko IV. eranskin bat aurkeztu behar da.

–Deialdiaren 7.2 puntuan zehazten diren baldintzak bete direla egiaztatzen duen adierazpena.

–Hala balegokio, kontzeptu berarengatik jasotako diru-laguntzen egiaztagiriak zeinetan argi eta garbi zehaztuko baita zeintzuk diren diru-laguntza jaso duten jarduerak. Lege-ordezkaririk izenpetutako agiria aurkeztu behar da. Agiri horretan honako hau zehaztuko da: jasotako dirulaguntza, zein jardueratarara bideratu den hura, aurrekontua, diru-sarrerak eta defizita.

Bertze dirulaguntza batzuk jaso dituzten jarduerak ez dute izanen Udalaren dirulaguntza jasotzeko aukerarik, jasotako dirulaguntzarekin defizita erabat estali gabe geratu direnak izan ezik.

6.2. Dirulaguntzari dagokion justifikazioa aurkeztu eta gero, deialdi honetako 6.1 puntuan jasotako baldintzekin bat ote datorren begiratu du Udalak.

7.–Betebeharrak.

7.1. Diruz lagundutako jarduerak aldaketaren bat jasanez gero, antolatzaileek derrigorrez jakinarazi beharko diote Kultura Arloari.

7.2. Eskatzaileek dirulaguntza jasoko duten jarduerari dagozkien hedapen eta publizitate euskarrietan Baztango Udalaren armarrria eta “Laguntzailea: Baztango Udala” esaldia jarri beharko dute derrigorrez.

7.3. Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestuz, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudiak sustatu beharko dira. Horretarako, onuradunek "Guía sobre estrategias de comunicación incluyente: El Género como prioridad" gida kontsulta dezakete, helbide honetan eskuragarri dagoena: <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/30B6ABA1-F8D6-468F-8CBB-D5808B5F6575/118955/GUIADECOMUNICACION1213.pdf>

7.4. Elkarre eskatzaileek memoria bat aurkeztu beharko dute, diruz lagundutako jardueraren erabiltzaileen edo onuradunen eta proiektua edo jarduera gauzatzera atxikitako langile kontratatuen edo boluntarioen datuak sexuaren arabera bereizita.

8.–Balizko ez-betetzeak eta ondorioak.

Bidezkoa izanen da jasotako diru kopuru osoa edo zati bat itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aitzina berandutza interesak eskatzea, honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntzaren helburua betetzen ez denean.
- b) Dirulaguntza horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe eskuratzen denean, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- c) Jasotako dirua zertan erabili den erakusteko beharra betetzen ez denean.
- d) Bateriaezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzen direnean.
- e) Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu edo betetzen ez direnean.
- f) Deialdi honetan aipatzen diren egiaztapen egintzei trabak jartzen direnean eta horiei men egin beharra betetzen ez denean.
- g) Beste kasu batzuetan, berariazko arau edo oinarrietan arautuak daudenak.

Dirulaguntza itzultzeko ebazpena dirulaguntza eman duen organoak emango du, aplikatu beharreko legeria orokorraren arabera espedientea bideratu ondoren.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta horiek kobratzeko, diru-bilketarren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa aplikatuko da.

9.–Onartzea eta interpretatzea.

9.1 Deialdi honetan parte hartzeak bertako baldintza guztiak onartzea dakar.

9.2 Baztango Udalari dagokio baldintzen erranahia interpretatzea, haien alderdi guztiak barne.

10.–Arau-hauste eta zehapenak.

Dirulaguntzen eta laguntza publikoen arloko arau-haustek eta zehapenak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoak aginduko du.

11.–Dirulaguntzetarako araudia.

Honako deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurreikusi ez den alderdi orotan, ondoko araudiak aginduko du: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko

Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta dirulaguntzei buruzko Estatuko Araudia.

- I. ERANSKINA
- II. ERANSKINA
- III. ERANSKINA
- IV. ERANSKINA